

MÚSICA
JESÚS ECHEVERRÍA
MUSIKA

LIBRETO
VÍCTOR IRIARTE
LIBRETOA

UNA PRODUCCIÓN DE
ÓPERA DE CÁMARA NAVARRA
Nafarroako Ganbera Operaren
ekoizpena

D'ARTAGNAN Y LOS JÓVENES MOSQUETEROS

ÓPERA EN FAMILIA
OPERA FAMILIAN



GIDA DIDAKTIKOA

DIANA ESCRICHE POLA

DEPARTAMENTO EDUCATIVO ESCUELA DE MÚSICA KITHARA MUSIKA - ESKOLAKO HEZKUNTZA-SAILA

MÚSICA
JESÚS ELIEBERRIA

LIBRETO
VÍCTOR IRDARTE

UNA PRODUCCIÓN DE
ÓPERA DE LA TIARRA NAVARRA

D'ARTAGNAN

Y LOS JÓVENES MOSQUETEROS

ÓPERA EN FAMILIA



MÚSICA
JESÚS ELIEVEKHA

LIBRETO
VÍCTOR IRDARTE

UNA PRODUCCION DE
ÓPERA DE LA TIERRA NAVARRA

D'ARTAGNAN

Y LOS JÓVENES MOSQUETEROS

ÓPERA EN FAMILIA

- | | |
|--------------------------------------------------|---------|
| 1.- Opera bat osatzen duten elementuak | 4. or. |
| 2.- Operaren antzezpenaren prestaketa | 6. or. |
| 3.- Obraren testuinguru historiko eta literarioa | 8. or. |
| 4.- Pertsonaiak | 10. or. |
| 5.- Obraren libretoaren eta musikaren pasartea | 11. or. |
| 6.- Eskola-emanaldia: "entsegu orokorra" | 14. or. |
| 7.- Jarduerak | 15. or. |



1. Opera bat osatzen duten elementuak

Opera arte eszenikoen adierazpen soziokultural eta artistiko osoenetakoa da. Ezinbesteko lau elementu ditu: istorioa, musika-konposizioa, eszenografia eta abeslariak.

Hainbat zatitan egituratuta dago, eta eszena eta dekoratu bereziek osatzen dute hari nagusia:

Obertura: operaren sarrera, instrumentuek bakarrik jotzen duten pieza laburra, ikusleari opera hasiko dela jakinarazteko.

Errezitatiboak: melodia errezitatuak edo mintzatuak. Bakarlariak interpretatzen dituzte, eta pertsonaien egoera emozionalak hobeto adieraztea edo, besterik gabe, informazioa ematea ahalbidetzen dute.

Ariak: ahots bakarlariak kantatutako eta orkestrak lagundutako musika-piezak, pertsonaiaren kezkek eta gogoetak adierazten dituztenak.

Duetoa, hirukotea, etab.: bi abeslarik, hiruk edo gehiagok osatutako taldea.

Korua: musika-pieza modu koordinatu eta bideratuan interpretatzen duen pertsona-talde batek abestutako pasarteak.

Interludioak: agertokia aldatzeko edo hurrengo ekitaldiari hasiera emateko erabiltzen diren atal instrumentalak. Operaren gidoitzat jo litezke.

Ekitaldiak: opera osatzen duten eszenak sailkatzeko modua.

Libretoak: testu abestua eta mintzaturia, obra antzeztu den hizkuntzan idatzia. Istorioa eta elkarrizketak jasotzen ditu.

Ahotsen sailkapena:

Opera-abeslariak eta antzezten dituzten pertsonaien rolak ahots-motaren arabera sailkatzen dira, eta ahotsa honako ezaugarri hauetan oinarritzen da: tesitura, arintasuna, indarra eta tinbrea.

Hona hemen ahots-motak altuenetik baxuenera:


♀	SOPRANOA
	MEZZOSOPRANOA
	KONTRALTOA
♂	KONTRATENORRA
	TENORRA
	BARITONOA
	BAXUA

Badakizu...?


Castrati-ak tinbre femenino eta ahots-indar maskulinoa zuten gizonak ziren; pubertaroan ahotsa aldatu aurretik barrabilak zikiratzen zizkietelako zuten halako ahotsa

2. Operaren antzezpenaren prestaketa

Hau da **opera bat** antzezten den arte **prestatzeko** prozesua:



Agertoki baten atalak eta antzezpenerako beharrezko osagaiak:



Orrazia: oihalak, hankak, pantailak eta fokuak zintzilikatzeko haga-multzoa.

Bastidoreak: agertokiaren alboetan dauden eta dekoratuaren parte diren armazoiak.

Hobia: agertokiaren eta besaulki-patioaren arteko gune beheratua, musikarientzat.

Banbalinak: agertokiaren zabalera osoan zintzilikatutako zerrendak, haren goialdea ezkutatzeko eta eszenaren altuera ezartzeko.

Oroitarazlearen maskorra: oroitarazlea ezkutatzeko behealdeko estalkia.

Oroitarazlea: abeslariari adierazi beharrekoa ahazten zaienean hitzak xuxurlatzen dizkien pertsona.

Besaulki-patioa: besaulkiz hornitutako antzokiko behealdea.

Palkoak: balkoi-formako eremua, pribatuagoa, antzokiko goialdean.

Badakizu...?



Urdin koloreak askatasuna, leialtasuna, harmonia, indarra, egia, autoritatea eta baretasuna esan nahi du. **Zitori horiak** (lirioaren irudikapena), berriz, ohorea, boterea eta subiranotasuna. Elementu biak XVII. mendeko Frantziaren bereizgarriak ziren; Henrike IV.ak, lehen Borboi ezagunak, Frantziako eta Nafarroako erregea bera, bere armarran txertatu zituen Nafarroako kateekin batera.

Richelieu kardinalak guardia "gorria" (mosketari gorriak) sortu zuela eta, Frantziako erregeak erabaki zuen bere babesleen guardia koroa hobekien identifikatzen duten bi elementuekin bereiztea: urdina eta zitori horia irudikatzen duen urre-koloreko gurutzea.

Elementu bien konbinazioa Espainiako egungo armarran ageri da, erdian.

3. Obraren testuinguru historiko eta literarioa

Desleialtasunez leial Dumasekin

VÍCTOR IRIARTE

Alejandro Dumasek 1844an argitaratu zuen “*Hiru mosketariak*”, foiletoi gisara, El siglo egunkari frantsesean. Badirudi eleberria urte hartako martxotik uztaileira atalka argitaratu ahala osatu zuela, kontuan hartuta presaka eta, batzuetan, batere zaindu gabe idatzitako estiloa duela, bai eta akats historiko ugari ere, eta paragrafo gutxi batzuen ondoren gorabehera eta gidoi-aldaketa mordoa sartzen duela etengabe. Istorioa pixkanaka-pixkanaka jasotzen zuen irakurlearen interesari eutsi behar zion, hurrengo egunean egunkaria erostea ez ahazteko bezainbesteko jakin-mina sorraraziz. Argitaratzeko modu hori, muga bihur zitekeena, idazlearen arrakastaren indar eragilea izan zen azkenean: pertsonaia magnetikoak sortzea lortu zuen, etengabeko mugimenduan daudenak, ekintza hutsa direnak, beren helburuak denbora errekorrean bete behar dituztenak; ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka iraunkorra, nork bere burua hobetzeari, sakrifizioei eta adiskidetasunari buruzko istorioa ere badena. Eta mende eta erdi geroago indar berarekin liluratzen jarraitzen duena.

Egia da Nafarroako Henrike III.a erregeak mosketari-guardia bat izan zuela, 1589an Frantziako tronura iritsi zenean bere inguruan bildu zuen guardia pretoriarra. Errege bihurtu zen lehen Borboiak bazekien bere patua katolikoek eta higanot kalbinisten arteko erlijio-gerrek sarraskitutako herrialdean hiltzea zela; horrexegatik saiatu zen bere heriotza erabateko konfiantzazko gizonez inguratuta ahalik eta gehien atzeratzen, Nafarroa Beherekoak eta Gaskoniakoak, Frantziako hegoaldeko eskualde batekoak, ziren gizonez. Haren semeak, Luis XIII.ak, eskolta hori oinordetzan hartu eta sendotu egin zuen, eta Dumasek, zuhurki, Richelieu kardinala buruzagi zuen armadarekin borrokan jarri zuen. Hala gertatzen da hainbat film eta komikitan ikusi izan dugun intrigan. Egia da, halaber, D’Artagnan izeneko zaldun bat izan zela, mosketarien teniente kapitaina bera, eta bere oroitzapenak argitaratu zituela; idazleak bi mende geroago irakurri zituen eta, zalantzarik gabe, bere literatur-lan berrian argia eman zioten.

Dumasek ez zuen askoz gehiago behar izan. Gertaeren datak aldatzen zituen, agertokiak ere bai, bere piezak inoiz zapaldu ez zituzten lekuetan jartzen

zituen, eta D'Artagnani eta haren adiskideei ekintza jakin batzuetan egozten zien rol nagusia nahiko zuketean haiek bizirik zeudenean protagonizatu. Dena zegoen abenturaren zerbitzura. Kazetari txarrek bezala, horixe baitzen Dumas, beti baztertzen zuen errealitatea kontakizun onaren mesedetan, ez ziezaion zapuztu.

“Hiru mosketariak” eleberria 1625ean dago kokatuta, Luis XIII.aren erregealdian. D'Artagnanek 18 urte ditu, eta bere adiskideek ia bi hamarkada gehiago. Dumasek bere bestsellerraren arrakasta bigarren zatia idatziz luzatu zuen, hogeitau urte geroago. Idazleak traizio txikia egin zion bere lehen liburuaren espirituari, mosketariak beren artean borrokaraziz, tarteka beren “Bat denontzat eta denok batentzat” ahantzaraziz, bizitzak, maitasun-kontuek, nahigabeek eta politikak garai batean batzen zituen anaitasunetik aldendu ahala.

Gure D'Artagnan y los jóvenes mosqueteros eraikitze orduan, desleialtasunez leial izan gatzazkio Alejandro Dumasi. Hau da, haren protagonista nagusiez “jabetu” gara eta 1648. urte inguruan kokatu ditugu, Parisen lehen aldiz elkartu zirenetik bi hamarkadara, halaber. Baina, hortik aurrera, dena asmatu dugu. Athos, Porthos eta Aramis gaztaroko gehiegikeriak gorputz nekatuetan ordaintzen ari dira, eta erretiratuta bizi dira. Baina, aspaldiko adiskideari fidel beti, beren kumeak bidaliko dizkiote, zeharo ahaldundutako bi neskatila eta ideiak argi dituen mutiko bat, hirurak ere txikitari hainbeste aldiz entzundako abenturak imitatze prest.

Luis XIII.a hilda dago eta erregina alargunak, Ana Austriakoak, zaintzen du erresuma Luis XIV.a, “Eguzki Erregea” izenez ezagutuko dena, adin-nagusitasunera heldu arte. Gure obran, erreginak onen taldean jarraitzen du eta, Richelieu ere hilda dagoenez, gaizto-gaiztoaren rola Mazarinori eman diogu. Tronuaren oinordekoa, Luis, delfina, atzerrian ikasten ari da ezkutuan. Mazarinok Holandan dagoela jakin, eta gerra deklaratu dio herrialdeari, hura itzul ez dadin eta bera jabetzeko botere guztiaz. Orduan, Ana Austriakoak D'Artagnan fidelarengana joko du, delfina zehazki non dagoen jakin eta Versaillesera amaren ondora onik ekar dezan. Kardinalaren lekaioak mosketarioaren misioa eragozten saiatuko dira.

Horrenbestez, gure fikzioa ez dator bat Dumasen liburuekin, eta idazleak, fikziorako zuen bokazioa kontuan hartuta, zuzentzeko ausardiarik izango ez lukeela ziur egonik idatzita eta musikatuta dago.

4. Pertsonaiak



D'Artagnan
Erregearen mosketaria



Godot
D'Artagnanen morroia



Athos
Mosketari ohia



Porthos
Mosketari ohia



Aramis
Mosketari ohia

Adèle
Athosen alaba,
mosketaria

Albert
Portosen semea,
mosketaria

Christine
Aramisen iloba,
mosketaria



Ana Austriakoa
Frantziako erregina

Ostalaria
Erreginaren agentea



Luis XIV.a
Delfina eta etorkizuneko
Eguzki Erregea

Bizco
Mazarinoren 1. lekaioa



Mazarino
Kardinala

Atranco
Mazarinoren 2. lekaioa

Aktoreek nola ikasten duten jakiteko, **libretoaren pasarte** bat dakargu. Pertsonaiaren izena, ikasi beharreko testua eta, tarteka parentesi artean, egin beharreko ekintza ikusten dira.

D'ARTAGNAN: Saludamos al enemigo al que vamos a desarmar. *(Se llevan la espada a la altura de la cara).*

TODOS: Se van a enterar.

D'ARTAGNAN: Todos en guardia que empezamos ya. *(Se colocan en posición).*
Marcha, marcha, marcha. *(Avanzan tres pasos)*

TODOS: Desenfundad. sin vacilar. ahora veréis. a pelear.

D'ARTAGNAN: Romper. romper. romper. *(Retroceden tres pasos).* Atentos...

TODOS: Marcha, romper. marcha, romper, marcha, romper. *(Avanzan tres pasos unos y retroceden tres pasos otros).*

TODOS: Marcha, romper, marcha, romper, marcha, romper.

D'ARTAGNAN: Respiramos hondo. estiramos el brazo y...

TODOS: ¡Fondo! *(Estiran el brazo y dan la estocada imaginaria).*

D'ARTAGNAN: ¡Tocado!

TODOS: Tuché.

D'ARTAGNAN: Y ahora otra vez. En guardia, en guardia.

TODOS: Marcha, romper, marcha, romper, marcha, romper. *(Avanzan tres pasos unos y retroceden tres pasos otros).*

TODOS: Marcha, romper, marcha, romper, marcha, romper.

D'ARTAGNAN: Apuntamos al hombro.

TODOS: ¡Fondo! *(Estiran el brazo y dan la estocada imaginaria).*

D'ARTAGNAN: ¡Tocado!

TODOS: Tuché. Es nuestro abecé. Mosqueteros del rey, mosqueteros del rey, mosqueteros del rey.

Ageri den libreto-pasarteari dagokion partitura-pasartea ikusi aurretik, konpositorea-ren musika-ikuspegia azaltzen da:

“D’Artagnan obraren musika, ekitaldi batez eta zortzi eszenaz osatutako 65 minutuko operarena, konplexua da jotzeko, baina erraza entzuteko. Pertsonaiei laguntzen dieten musika-motibo errepikakorretan oinarritua, egitura harmoniko oso landuaz elikatzen da. Hizkuntza tonala da, nahiz eta hemen tonalitatea askatasun handiz dagoen tratatuta. Tonu-azoziazio tradizionalak oso hauskorak dira; hainbeste, ezen sarri desagertu egiten diren. Entzuleak ezagutzeko moduko estetika erabili da, aldi berean interpretearentzat nekeza dena. Eszenak ondo bereizita daude musikalki, betiere bakoitzean parte hartzen duten pertsonaiak kontuan hartuta. Horregatik, musikaren bitartez, komikotik tragikora igarotzen da, malenkoniatsutik beldurgarrira edo ziurgabetasunetik zorientasunera. Une oro saiatu gara testuak dakartzan adierazpen-ñabarduretan oinarritutako musika egiten”. (Jesús Echeverría)

The image displays a musical score for the opera 'D'Artagnan'. It features three systems of music, each with a vocal line and a piano accompaniment. The vocal lines are for D'Artagnan and the Coro Mosq. (Chorus). The piano accompaniment is for the Pno. (Piano). The score includes lyrics in Spanish and Basque. The first system (measures 12-23) shows D'Artagnan singing 'ja for-mar!' and 'Sa-lu-da-mos al e-ne-mi-go al que va-mos a des-ar', while the Coro Mosq. sings 'A sus ór-de-nes mi ca-pi-tán.' The piano accompaniment is marked 'ff'. The second system (measures 23-26) shows D'Artagnan singing 'To - dos en guar - dia' and 'que em - pe-za - mos ya.' The piano accompaniment is marked 'f p'. The third system (measures 16-20) shows the Coro Mosq. singing 'Se van a en-te - rar.' and 'Se van a en-te - rar.' The piano accompaniment is marked 'ff'. The fourth system (measures 20-29) shows D'Artagnan singing 'Mar-cha, mar-cha, mar-cha. Rom' and 'Des-en-fun-dad, sin va-ci-lar, a ho-ra ve-réis, a pe-le-ar.' The piano accompaniment is marked 'ff'. The score includes a tempo marking '♩ = 110' and a dynamic marking 'ff'.

33 *Retroceden tres pasos.*
 per, rom - per, rom - per. A - ten - tos...

ff Retroceden tres pasos.
 Rom - per, rom - per.
ff Avanzan tres pasos.
 Mar - cha, mar - cha,

36
 Res - pi - ra - mos hon - do es - ti - ra - mos el bra - zo y... ¡To - ca - dol!

interrumpiendo a D'Artagnan, Estiran el brazo y dan la estocada.
 rom - per. ¡Fon - dol Tu - ché
 mar - cha. ¡Fon - dol Tu - ché...

39
 D'Art. —
 Coro Mosq. —
 Pno. —

42
 D'Art. Ya - ho - ra o - tra vez. En
 Pno. —

45
 D'Art. guar - dia En guar - dia *ff* Mar - cha, mar - cha
 Coro Mosq. — *ff Avanzan tres pasos.* Mar - cha, mar - cha, *ff*
 Pno. — *ff* Mar - cha, mar - cha, *ff*

48
 mar - cha. A - pun

Retroceden tres pasos.
 mar - cha. Rom - per, rom - per, rom - per.
Avanzan tres pasos.
 mar - cha. Mar - chen, mar - chen, mar - chen.

51
 ta - mos al hom - bro a - pun - ta - mos al hom - bro. ¡To - ca - dol!

interrumpiendo a D'Artagnan, Estiran el brazo y dan la estocada.
 ¡Fon - dol Tu - ché.
 ¡Fon - dol Tu - ché

54
 D'Art. —
 Coro Mosq. *Cantando, sin altura definida* Es nues - tro a - be - cé. Mos - que - te - ros del rey.
 Pno. *Cantando, sin altura definida* Es nues - tro a - be - cé. Mos - que - te - ros del

57 $\text{♩} = 140$
 D'Art. —
 Coro Mosq. Mos - que - te - ros del rey.
 Pno. rey. Mos - que - te - ros del rey.

6. Eskola-emanaldia: “entsegu orokorra”

Entsegu orokorra” obra estreinatu aurretik egiten dena da, antzeztu nahi den ikuskizunaren berdin-berdina (jantziak, makillajea, argiak...). Obra estreinatuko den tokian bertan egin beharko da.

Ez da etengo, eta taldeko profesional bakoitzarentzat ezarritako jarraibide guztiak errespetatuko dira, nahiz eta antzeztu bitartean doikuntza tekniko edo artistikoren bat egon daitekeen.

Amaitutakoan, balorazio orokorra egingo da, estreinaldirako edozein kontu hobetzeko edo zuzentzeko.

ANTZEZPENA IKUSI BITARTEAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA

O rdenatuta eseriko gara, aretozainek lagunduko dizute zure besaulkira
P resta zaitetz antzezpena arretaz ikusteko eta itzali zure telefonoa
E ntzun ezazu musika eta murgil zaitetz istorioan
R obotak bezala, ez jan eta ez edan
A sko txalotu, gogotsu, protagonistek eskertuko dizute

Badakizu...?

XV. mendean, antzezlanak komedia-antzokietan antzezten ziren. Aktoreak beti zebiltzan kirioak dantzan zenbat ikusle etorriko ote ziren, sarrerak ez baitziren aldeztu aurretik erosten. Bereziki, jende aberatsa bertaratzea nahi izaten zuten, emanaldiaren amaieran dohain dirutsuenak ematen zituztelako.

Jende dirudun ugari zegoen jakiteko modu bat zen sarreran zenbat zaldi-gurdi zeuden zain ikustea. Askok baziren, zaldien kaka-piloa egongo zen lurrean. Harrezkero, arte-munduan ohikoa da zorte ona eta arrakasta opatzeko esamolde hau entzutea: **KAKA ASKO! Bada, horixe bera.**

7. Jarduerak

7.1.- Osatu letra-zopa opera bat osatzen duten zortzi elementuekin.


E	V	K	I	O	E	P	A	O	D	J	M	N	N	A
H	Z	K	N	B	O	L	E	O	I	E	K	F	M	K
N	N	G	O	E	A	O	F	R	E	I	O	R	A	L
I	N	T	E	R	L	U	D	I	O	A	K	O	E	I
Y	T	N	T	T	U	D	E	A	B	O	B	E	K	B
E	O	Q	O	U	E	A	T	Z	A	I	R	E	I	R
A	B	T	K	R	L	R	E	O	T	B	E	N	T	E
I	U	S	S	A	A	E	T	A	E	A	E	R	A	T
J	O	O	A	E	R	E	T	L	E	P	E	N	L	O
D	A	I	A	C	U	I	L	I	O	T	E	D	A	
U	R	N	U	D	Z	Q	E	T	O	A	K	O	I	A
N	I	B	R	E	D	A	L	A	B	R	O	E	A	L
C	A	L	R	I	E	U	U	B	A	U	A	E	K	T
U	K	R	R	E	N	A	C	E	A	I	I	R	A	E
S	E	B	E	O	K	K	R	E	I	S	D	N	U	L

7.2.- Jakingo zenuke ahots-espektroa baxutik altura ordenatzen?

- 1) _____ 2) _____ 3) _____ 4) _____
 5) _____ 6) _____ 7) _____

7.3.- Definitu "castrati": _____

7.4.- Idatzi agertoki baten atalen eta elementuen izenak.



7.5.- **Argia** objektuak eta espazioak ikustea ahalbidetzen duen fenomeno fisikoa da. Argiztapenak eszenatokian egiazkotasuna ematen dio istorioari, pertsonaiak nabarmentzen ditu eta gertakari bat azpimarratzen du, argi-itzal kontrasteekin. Fokuen jarrerak, argiztatzeko moduak edo argiaren indarrak eta koloreak ikuskizuna baldintzatzen dute.

Hiru laguneko taldetan (fokuaren edo linternaren arduraduna, modelo bat eta argazkilari bat), hainbat argazki egingo ditugu argi-puntua hainbat tokitan kokatuta (goian, behean, ezkerrean eta eskuinean). Hauek dira argazkietan jaso beharreko planoak: lehen planoak (aurpegia eta sorbaldak), erdiko planoak (gerriraino), plano osoa (oinetatik bururaino). Misterio-sentsazioa aldatzen da? Zein erabiliko zenuke sakontasuna emateko? Eta modeloa txikiago edo handiago ikusteko?

7.6.- *Erantzun galdera hauek:*

Zein urtetan argitaratu zuen Alejandro Dumasek “*Hiru mosketariak*”? _____

Nola zuen izena Henrike III.aren semeak? _____

Zein da mosketarien esaldi adierazgarria? _____

Zein hiritan elkartu ziren lehen aldiz mosketariak? _____

Non dago Luis XIV.a obra osoan? _____

Non bizi da erregina, Ana Austriakoa? _____

7.7.- *Lotu pertsonaia bakoitza dagokion deskribapenarekin:*

Adèle	Erregearen mosketaria
Mazarino	D'Artagnanen morroia
Athos	Mosketari ohia
Atranco	Mosketari ohia
D'Artagnan	Mosketari ohia
Ostalaria	Athosen alaba
Albert	Porthosen semea
Luis XIV.a	Aramisen iloba
Godot	Frantziako erregina
Porthos	Delfina eta etorkizuneko Eguzki Erregea
Christine	Kardinala
Ana Austriakoa	Erreginaren agentea
Aramis	1. lekaioa
Bizco	2. lekaioa

7.8.- Lau laguneko taldetan, pertsonaiak banatuko ditugu (D'Artagnan, Athos, Porthos eta Aramis) eta 11. orrialdeko libreto-pasarteak interpretatuko dugu.

7.9.- Entzun 12. eta 13. orrialdeetako musika-pasarteak eta saiatu partituran jarraitzen: zein musika-instrumentu laguntzen dio? _____ Zenbat ekitaldi ditu opera honek? _____ Eta zenbat eszena? _____ Zenbat irauten du? _____

7.10.- Bereizi koloreekin partitura baten osagaiak:



Zuriak

Biribilak

Hirukotxoak

Sol klabea

Fa klabea

Metronomoa

The image shows a musical score for 'OPERA EN FAMILIA'. It consists of three systems of music. The first system starts at measure 12 and includes lyrics in Basque: 'ja for-mar!' and 'Sa-lu-da-mos al e-ne-mi-go al que va-mos a des-ar'. The second system starts at measure 16 with a tempo marking of quarter note = 110 and includes lyrics: 'mar.', 'Se van a en-te rar.', and 'De inmediato, los hombres se ponen en fila de a dos de frente al público.' The third system starts at measure 20. The score includes parts for D'Artagnan (D'Art.), Coro Mosq., and Piano (Pno.).

MÚSICA
JESÚS ELIEVEKHA

LIBRETO
VÍCTOR IRBAITE

UNA PRODUCCIÓN DE
ÓPERA DE CÁMARA NAVARRA

D'ARTAGNAN



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



 Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

 Teatro Gayarre


Ópera de Cámara
de Navarra


Kithara
escuela de música